



OÑATIKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Azkoitiako lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:

- **Oñatiko hiri antolamenduko testu bateratua** (Diputatu Kontseiluak 2006ko apirilaren 4an behin betiko onartua, eta GAOn 2006ko ekainean 29an argitaratua).
- **Oñatiko hiri antolamenduko arauen berrikusketa (H.E.A. 35 "Kasablanka"n etena altxatzea)**. (Diputatu Kontseiluak 2007ko urtarrilaren 16an behin betiko onartua, eta GAOn 2007ko otsailaren 26an argitaratua).
- **Oñatiko Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena. "Lazarraga" I.51 eta "Kirrikua" II.2 Hirigintza Areek –Orain "Lazarraga" II.2 Hirigintza Area eta Lurzoru Hiritarrezina– Zuten Etena Bukatutzat ematea.**



(Diputatu Kontseiluak 2007ko ekainaren 5ean behin betiko onartua, eta GAOn 2007ko uztailaren 13an argitaratua).

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

- 1.- Hirilur lurraren muga aldatzen da.**
- 2.- 016, 017, 018, 101, 201, 202, 203, 401, 411, 414, 601, 808 eta 854 zona katastralen mugak aldatzen dira.**

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze plano.

II. ERANSKINA

Zona katastralen plano.